



HITZ MAGIKO BAT TESTURAKO JARDUERAK

Hitz magiko bat testuaren bidez, **Norberarekiko erantzukizuna** landu nahi dugu: konpromisoaren balioan hezteak neska-mutilen autonomia garatzen laguntzen du, erabakiak hartzen laguntzen die eta beren ekintzen ondorioak beren gain hartzen erakusten die. Bere buruarekiko konpromiso-maila altua duenak konpromiso-maila altua du besteeikiko ere.

Jarduera hauen bidez lan ditzakegun edukiak

- 1. arloa. **Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala:**
 - 1. blokea.
- 3. arloa. **Hizkuntzak. Komunikazioa eta adierazpena:** 1. eta 3. blokeak.

1: IRAKUR ETA KANTA DEZAGUN

Beharko dugun materiala

Hitz magiko bat testua. **esteka**

Hitz magiko bat abestia. **esteka**

Hezitzailearentzako oharrak

Narrazioaren lagungarri, erabili Manos Unidasen Hezkuntzari buruzko webgunean **lotura** eskura dauzkazun abestia, posterra eta ilustrazioak.

Garapena

- Irakurri *Hitz magiko bat* testua, KONPROMISO hitza aurrenekoz agertzen den arte:
 - Entzun al duzue inoiz hitz hori? Zer esan nahi du? Azal dezatela beren ustez zer esan nahi duen.
 Jarraitu testua irakurtzen, bukaerara arte.
- Entzun abestia, testuaren laguntzarekin edukia errepasatuz, eta esanahiaren inguruan sor litezkeen zalantzak argitu.
 - Pentsa dezatela haietako inork baduen besteeikiko konpromisorik eta bete duen.
- Guztien artean, errepasatu abestia, konpromiso hitzaren edukia errepasatzeko.
- Jarri abestia eta erabili hizkiak errepasatzeko (posterra erabil dezakezu, hizkiak seinalatzen joateko).



HITZ MAGIKO BAT

Hona hemen hitz berri bat;
berehala ikusiko duzu.
Adi-adi egon,
pista bat nahi baduzu:
nire lehen hizkia ez da A,
eta ez da B;
hamaika hizki ditut
eta K daukat lehen.

KONPROMISOA

Oraintxe esango dizut
magikoa zergatik naizen:
arduratsua bihurtuko zarela
nire hizkiek diotena betetzen.

K: Kontu handiz zaintzen dut ikasgelako materiala, denona da eta.

O: Ondoan ditudanei maitasuna ematen saiatzen naiz.

N: Norbait sufritzen ikusten dudanean, lagundu egiten diot.

P: Poza hartzen dut besteak nitaz arduratzen edo kezkatzen direla ikustean, eta eskerrak ematen dizkiet.

R: Robot, puzzle eta jostailu guztiak, erabili ondoren, txukun jasotzen ditut.

O: Ondo zaintzen dut ingurumena; sortzen dudana zaborra jaso egiten dut eta zakarrontzira botatzen dut.

M: Modu berriak bilatzen saiatzen naiz, nire jostailuak berrerabili ahal izateko.

I: Ikasgelan zerbait esan nahi dudanean, eskua altxatzen dut.

S: Saiatzen naiz jolasten naizenean beti pozik ibiltzen, nahiz eta batzuetan galdu.

O: Obeditu egiten dut etxean eta lagundu ere egiten dut.

A: Ahalegina egiten dut gauza berriak ikasteko.

**NIRE KONPROMISOAK BETETZEN BADITUT, ARDURATSUA
IZANGO NAIZ.**



2: KONPROMISOA ETA ERANTZUKIZUNA

Beharke dugun materiala

Eranskinean datozen hizkien txantiloiak.

Hezitzailearentzako oharra

Jarduera honen bidez, konpromisoaren esanahia aztertuko dugu, eta erantzukizunarekin duen harremana ikusiko. Arduratsua edo erantzulea da egiten eta erabakitzen duenari arreta eskaintzen diona, eta bere ekintzen ondorioak bere gain hartzen dituena.

Gure konpromisoak betetzen baldin baditugu, arduratsuak izango gara.



Garapena



- Azaldu ikasleei arduratsua izatea gauzak ondo egiteaz arduratzea dela. Jar ezazu adibide bat:
«Arduratsua naiz nire marrazkia ondo ateratzeko ahalik eta ondoen marrazten saiatzen naizenean».
- Jarri ikasleak taldeka eta eman talde bakoitzari konpromisoa hitzaren hizkien txantiloiak. Hitz hori hainbat aldiz errepikatuta egongo da, beraz.
- Esan taldeei nahi duten bezala margotzeko eta apaintzeko, baina arduratsuak izateko. Adibide batzuk eman ditzakezu:
 - Margoak ondo erabili.
 - Lana denen artean antolatu.
 - Elkarri lagundu.


Hau;marketa


- Hizkiak margotuta dauzkagula, konpromiso hitzaren hizkiei dagozkien esaldiak errepasatuko ditugu guztion artean. Hizki bakoitzean, galdetuko diegu esaldiaren esanahia ulertu duten eta bertan adierazitakoa betetzen duten.


ERANSKINA













3: TALDE BIKAINA DA GUREA

Beharko dugun materiala

Konpromiso hitzaren hizkiak, jada margotuta dauzkazuenak.

Garapena

- Jarri hizkiak lurrean eta osatu **konpromisoa** hitza.
- Denek ondo ikus dezatela hitza. Gero, eskatu talde bakoitzari hitzari hizki bat kentzeko:
 - Horrela, uler al daiteke hitza? Zer gertatu da?

Hau:narketa

- Hitzari hizki bat bakarrik kendu diogu, baina hitzaren hizki guztiek talde batosatzen dutenez, batek taldea uzten badu, konpromisoa apurtu egiten da eta hitza ulergaitz geratzen da.
- Ikasgelan gauza bera gertatzen da: neska-mutil guztiek talde batosatzen duzue, eta baten batek ez baditu bere konpromisoak betetzen (adibidez, ez badu gelako materiala zaintzen), gauzek ezin dute ondo funtzionatu eta horrek guztiengan du eragina.



4: HAR DEZAGUN KONPROMISOA

Beharko dugun materiala

Konpromiso hitzaren hizkiak, lehen margotu ditugunak.
Eranskinean datorren dominaren txantiloia.

Garapena

- Jarri konpromisoa hitza (neska-mutilek margotutako hizkiak, alegia) gelan ondo ikusten den leku batean, eta, testuarekin batera, ikasturtean zehar konpromisoarekin eta erantzukizunarekin lotuta sor daitezkeen egoeretan hausnarketa egiteko erabili.
- Eskatu esaldietako bat aukeratzeko eta klasean betetzeko konpromisoa hartzeko.
- Eman dominaren txantiloia, margotu eta etxera eraman dezaten. Helduei eskatu haurrari zerrenda bat egiten laguntzeko, etxean bete beharko dituen hiru konpromiso jasotzen dituen, eta konpromiso horiek betetzean jar diezaiotela domina.

Hauñnarketa

- Aipatu guztien artean gure konpromisoak betetzearen eta ez betetzearen ondorioak.
- Nire konpromisoak betetzen baditut:
 - Harreman hobea izango dut besteekin.
 - Alaiago egongo naiz.
 - Helduek zoriendu egingo naute eta ospatu egingo dugu nik egindako ahalegina.
- Nire konpromisoak betetzen ez baditut:
 - Horren ondorio negatiboak neure gain hartu beharko ditut. Adibidez, gelako materiala zaintzen ez badut, irakasleak errieta egingo dit eta ikaskideak haserretu egingo dira nirekin.

ERANSKINA

